

1.Gaia: ANTROPOLOGIA SINBOLIKOA DISZIPLINAREN BILAKAERAN

Esparru sinbolikoa ikertu duten antropologoek lana biltzen duen jakintza esparrua da antropologia sinbolikoa, 70.hamarkadan sortutako azpidisziplina. Esparru sinbolikoaren baitan esnahiarekin lotuta dauden fenomenoak kokatzen dira: hizkuntza, mitoak, ametsak... Esanahiarekin lotuta dauden fenomenoak, mundua azaltzen ahalegintzen diren. Esnahiaren eraikuntza prozesua ikertzen duen esparrua da hau.

Esanahiaren eraikuntzak, sinboloak, funtzionatzeko eta balio dezan hainbat ezaugarri behar ditu:

- 1) Adostasuna. Adostasuna ezinbestekoa da esnahiaren eta sinboloaren eraikuntzan. Hau argi ikusten da hizkuntzaren esparruan, baita beste hainbat esparrutan, esaterako bide seinaleetan.
- 2) Kobentzionaltasuna. Sinboloak kobentzionala dira, hau da, badago adostasun arautu bat.
- 3) Malguak dira, haien esanahia ez da betiereko. Malgutasunarekin batera aipatubehar da anbiguoak direla, hau da, ez dutela esnahi bakarra, etengabe interpretatu egiten direla. Sinbolo batek ez du inoiz esanahi bat eta bakarra izango; sinboloek esnahi aniztasuna dute.

Antropologo sinbolikoentzako ez da garrantzitsua izango zer den sinboloa, nola definitu daitekeen, baizik eta sinboloak zer esan nahi duten. Sinboloak gizartean zer leku, zein garrantzi duen, eta horren bidez zer mugitzen den izango da garrantzitsu.

Sinboloen azterketan bi fokoa nagusituko dira: indibiduala (psikologia) eta kolektiboa (antropologia). Freudentzat arazo klinikoaren irtenbide bat izango da sinbolismoaren azterketa, interes praktikoa bat du helburu. Aldiz, Durkheimen kontrako lortu nahi du, sinboloen azterketa bidez, gizartearen antolaketa ulertu nahi du, plano abstraktu batean, helburu teorikoa du.

Durkhimentzat gizabanakoaren eta gizartearen arteko lotura armonikoa erkusten dute sinboloek; aldiz, Freudentzat disonantzia erakusten dute, gizarte eta gizakiaren arteko disonantzia. Durkheimentzat sinbolismoaren funtzioa gizakia parte den giazrteko partaide sentitzea da; gauzak bere lekuan daudenaren sentsazioa sortu.

2.Gaia: ERAGINKORTASUN SINBOLIKOA: SINBOLOAK ZERTARAKO?

1. Levi-Strauss: estrukturalismoa. Eraginkortasun sinbolikoa

Sinboloen ikerkuntzaren barruan haien burua antropologo sinbolikotzat dutenak eta ez dutenak aurkituko ditugu. Bada, azken hauetakoa da Levi Strauss.

Levi Straussen estrukturalismoak agerian uzten du zer nolako garrantzia duen esparru sinbolikoak, lehen mailako arretagunea bihurtzen du. Estrukturalismoarentzat egitura da bere tresna nagusia, bere bilaketaren jomuga. Egiturak bilatzen ditu unibertsaltasuna aurkitzeko, unibertsal horiek frogatuko lukete gizakiaren batasuna. Gizaki guztiak sozializatu garen gizarteak ezaugarri komun batzuk konpartitzen ditzute, eta ezaugarri unibertsal horiek forma partikularrak hartuko lituzke. Forma partikular horietatik haratago bilatzen ditu egitura unibertsal horiek.

Estrukturalismoak unibertsalen aurkikuntza du helburu, eta hau egitura kognitiboetan islatzen da. Sakoneko egituren bilaketa horretan agertzen da sinbolizatzeko gaitasunaren auzia bete-betean. Levi starussek testuan (Eraginkortasun sinbolikoa) jasotzen duena da zein punturainoko garrantzia daukan arlo sinbolikoak gizartearen egitura ulertu ahal izateko. Arlo sinbolikoa aztertuta sakoneko egitura horretarako sarbidea izango genuke. Mitoak azertuta, ez dugu soilik kontakizun bat eta haren eragina ikusten, baita ere askoz sakonagoa den zerbait, hau da, unibertsal izango diren egitura kognitiboak. Mitoak ez dira ikertzne soilik interesgarriak direlako lehen bezala, orain aplikatzen den ikuspegia desberdina da, mitoak aztertuz gizartearen sakoneko egiturak aurkitu nahi dira.

Horrenbestez, mitoak ez dira soilik sinismen sistema baten barruko kontakizuna, ez gaude soilik diskurtso edo sinismen mailan. Mitoaren analisiak antza handia izango luke filologo batek egingo zukeen analisiarekin, dena oso detailera azalduta. Testua iruzkindu egiten du goitik-behera.

Mitoetan aldaera ezberdinak daude, beraz, bertsio guztiak baliokideak diren edo bat benetan originala den zalantzan jartzen da. Estrukturalismoarentzat mitoak jasotzea interesgarria da, ez jakiteko originala zein den, baizik eta testuinguru kultural ezberdinetan aurkitzen diren ezaugarri komunak ikusteko, eta guztiak matriz bakarraren aldaera ezberdinak direla esaten dute. Beraz, aldaera ezberdinak azertuz sakoneko egitura unibertsal horiek aurkitu nahi dira. Hori horrela izanda esparru sinbolikoak sekulako garrantzia hartzen du. Esparru sinbolikoa ez delako erlijioari lotutako esparru bat, baizik eta diskurtsoari lotutako zerbait, eta aztergai dagoena hizkuntza bera da, hizkuntza sistema sinboliko bezala. Modu honetan, estrukturalismoak esparru sinbolikoa asko handitzen du eta ikaragarritzko garrantzia ematen dio, horien bidez sakoneko egituretara iristen baita.

Levi-Straussek unibertsalak liriteken egiturak bilatzen pasa zuen denbora, konparaketa eginez, mitoaren esparruan eta ahaidetasunean. Bietan unibertsalak bilatzen ditu, berarentzako gizakiaren batasun unibertsal bat egon badago, kulturak forma eta aldaera ezberdinez jantzi dituena. Orduan, esparru sinbolikoa, alde honetatik, bihurtzen da lehen mailako arretagunea. Sinboloen azterketaren bidez sakoneko egitura hori azalerratu daitekeelako.

Ondoren, hamarkada oso guxtiren artean, posmodernoek guztiz gaitzetsiko dute unibertsalen bilaketa.

2. Mary Douglas: *Pureza y Peligro*

Mary Douglas ingeles katolikoa zen. Gehiengo protestante baten baitan gutxiengo bat da, eta antiritualista eta errituen arteko eztabaida hau katolizismoaz eta protestantismoaz duen ezagutzarekin dago loturik.

Mary Dougalsek lehenik, errituen inguruan mendebaldeko gizartean egon den aurreiritzia azaltzen du. Izan ere, mendebaldeko gizartetik gaizki ulertu dira gizarte primitiboetako errituak. Errituak efektuak sortzeko kausa bat direla uste dutela sinistu izan da. Baina hau ez da horrela. Horretarako mirariekin konparatzen ditu.

Mendebaledan barne erlijioak izan du pisu nagusia, horregatik errituak bigarren mailan batean gelditu izan dira, tradizio antierritualista bat egon da. Kanpo adierazpideetan zentratzea zentzurik ez dutela pentsatu izan da, "la nueva religion de la conduca fente a la vieja tradicion del culto". Mary Douglasek gogor kritikatu du ideia hau, kanpo adierazpenik gabeko erlijioak ez dagoela esaten du, gizaki sozialak garen heinean.

Errituak errepresentazio sinbolikoak dira.

Erritu erlijiosoetan Durkheim eta Radcliff-Brown aipatzen ditu. Gizarte batean balio komun batzuk daude, eta errituen bidez hauek nabarmentzen dira, kolektiboa indartzeko. Errituen alderdi edo eragin soziala aitortzea da haien ekarpen nagusia.

Douglasek dio gure jokabide erritualak askotan erlijiotik at dagoela. Izan ere, gure ekintza sinbolikoa esparru diseberdinetan ematen da, esperientzia fragmentatua daukagulako. Aldiz, primitiboetan esparru bakarrean ematen dela dio, unibertsoari koherentzia ematen dion eskema esplikatibo bakarra dutelako. Hau da, mendebaldean esperientzia paradigma askoren bidez azaltzen da, psikologia, zientzia, erlijioa... aldiz, gertatzen diren gauzak azaltzeko primitiboak paradigma bakarra erabiltzen dutela esaten du.

Eraginkortasuna nun dagoen azaltzen du. Errituaren eraginkortasuna egoera sozialaren manipulazioa da.

Plano berera ekartzen ditu magia (gizarte primitiboen errituen ondorioak) eta miraria. Alde bat soilik ikusten du, gizarte primitiboak esperientzia guztiak pentsamendu sistema bakarraren arabera azaltzen dituztela uste du, mendebaldeko gizarteak, aldiz, esperientzia guztiak ez dira eskema esplikatibo bakar baten arabera azaltzen, batzuk erlijioti, besteak zientzitik, kasualitatek... pentsamendu sistema asko daudenez, esperientzia fragmentarioa da. Mary Douglasi hainbatetan kritikatu zaion ideia da azken hau.

Mary Douglasek Maussen diru faltsuaren adibidea ekartzen du gogora eraginkortasunaren auziaz hitz egiteko. Mausseki dio magia herri primitiboentzat diru faltsua bezala dela, pentsatzen dute balio duela baina benetan ez du balio. Mary Douglasek hau kritikatu egiten dio, esanez magian sinsiten dutenentzat nahikoa dela horretan sinistea eraginkorra izateko. Hau da, diru faltsuak

funtzionatzen du, harik eta norbaitek ikusten duen arte ez duela funtzionatzen. Konfiantza da oinarria. Diruak balio du horrengan sinisten duelako jendeak. Kasu honetan, eraginkortasunaren auzia dugu. Adostasun bat behar da magiak, diruak... funtziona dezaten. Mary douglasek maussi egiten dion kritika horretan agertzen zaigu ideia hau. Erritoaren eta diruaren arteko konparaketa egiten du, maussen kontestuan. Izan ere, errituan, magian bezala, adostasunik ez balego eraginkortasuna galduko lukeelako. Diruak soilik funtzionatu egiten du jendeak horrengan sinisten duelako, eta hau edozein errituri buruz esan daiteke, sinismena ezinbestekoa da, eta sinismen horrek mugiarazten du gizartea bera. Erritu primitiboa benetazko dirua bezalakoa da, soilik harengan sinistuz balio du. Ondorioz, erritu primitiboak eta mendebaldeko gizartea gerturatu egiten ditu, dirua eta magiaren arteko paraleloa sortuz. Honekin batera, errituak egoera aldatzen du, aldaketa bat sortzen du, zerbait gertatzen da erritiaz geroztik. Erritoak badauka berez funtzio bat, eta hori da gizartean eraldaketa sortzea, hori argi ikusten da igarotze errituetan.

3.Gaia: KATEGORIAK, SAILKAPENAK ETA ORDENU SINBOLIKOA

3. Robert Hertz: *la muerte y la mano derecha*

Hertzek garai hartako teorikoa zientifikoak burmuninaren gurutzaketa nola azaltzen zuten ikusten du. Zientziak zer nolako azalpena eman dion fenomeno honi ikusten du, eta berak antropologiatik irakurtzen du, ez delako nahikoa azalpen zientifikoak, biologiatik haratago badago zerbait gehiago. Antropologiatik ulertzen du gorputzaren poralitatea gizartearen isla dela; hierarkiaren ideia, ona eta txarraren ideia, mailarik barnerkoenenera jeisten dugu, gure gorputzaren funtzionamendua gizartearen balioaren arabera ulertzen dugu. Gizartea

pentsatzeko moduaren eta gorputzaren arteko lotura planteatzen du, eta polaritate erlijiosoan asmatu ez balitz asmatu beharko litzatekela esaten du, isla hori ezinbestekoa delako.

Horrenbestez, gorputzaren ikerkuntzak gizarteak zer baliosten eta zer gaitzesten duen erakutsen digu. Bere garairako oso berritzailea izan zen, dualismoari ematen dion garrantziagatik estrukturalismoaren oinarria kontsidera daiteke Hertz. Durkheimen sakratu eta profanoaren arteko bereizketa gorputzera ekartzen du, erlijiotik gorputzera.

HIZKUNTZAREN ATALA

Ezkerra eta eskubiaren arteko poralitatea literalki gorputzen da gorputzean, ez da gauzaturen sinonimo hutsa, poralitate hori gorputzean gauzatzen da. Poralitatearen auzia, sakratu eta profanoaren arteko bereizketa, Durkheimek planteatutakoa, Hertzek gizakiaren gorputzean nola gorputzen den erakusten du.

Gorputzaren zati horretatik, hizkuntzaren atalera nola pasatzen den ikus daiteke. Gorputzaren alde bat sakratuarekin eta bestea profanoarekin lotzearen prozesua, batera doa alde horretako bakoitza izendatzeko terminoekin.

Gorputzaren poralitatea nola agertzen zaigun lexikoan. Maila lexikora iristen da sakratua eta profanoaren arteko identifikazioa.

Europar eskubia izendatzeko hitzak antzekoak dira, hizkuntza horietan ezkerre izendatzeko erabiltzen diren hitzekin konparatzen baditugu:

Eskubia, derecha, right, diestra, droite, recht

Ezkerra, zquierda, left, siniestra, gauche, links

Antzinean linguistak hizkuntzak ikertzen hasten direnean, konturatzen dira badaudela antzekotasunak sanskritoan eta europako hainbat hizkuntzetan erabiltzen diren hitzen artean. Modu honetan, filologiaren hasierarekin kontzeptu bat asmatzen dute, metahizkuntza bat izendatzeko, ustez garai batean existitu zen hizkuntza bat izendatzeko, indoeuropearra. Indoeuroparraren sorreraren baitan, familia ezberdinak aurkitzen dira. Europako hizkuntza gehienak hortik, euskera izan ezik. Euskera ez da hizkuntza indoeuropearra da, eta hori eskubia eta ezkerre izendatzeko garaian antzematen da.

Eskubia izendatzeko ahoskera antzekoa duten hitzak, erromantze hizkuntzatik eta familia germanikoko terminoak dira, horrenbestez eskubia izendatzeko terminoak antzekoak dira. Erro indoeuropearra dutelako.

Ezkerra izendatzeko, aldiz, termino ezberdinak ditugu. Hainbat arrazoigatik izan daitezke horrela. Ez dago eskubia izendatzerakoan dagoen batasunik, halako homogeneitatekerik.

Ezkerrari lotutako terminoak kanpo semantiko mugatuago dute, aldiz, eskubikoak esanahi metaketa zabalagoa dute.

Eskubiaren kanpo semantikoa, eskubia gainerako hizkuntzetan, esanahi positiboekin lotuta dago: ondo, zuzena, arrazoia... Eskubiaren lotutako terminoak hizkuntza indoeuropearretan positiboarekin daude lotuta, aldiz, ezkerreko terminoak negatiboarekin lotuta.

Eraikitzen den poralitatearen banaketak sortzen du hizkuntza hau, termino hauek. Hizkuntza sistema sinbolikoa dela aipatzean, horrelako adibideetan argi ikusten da, hau da, nola irudikatzen dugun poralitatea terminologian, hizkuntzaren erabileran. Profanoa eta sakratua, ongia eta gaizkia, pare kontrajarriak nola islatzen diren hizkuntzan erakusten dute hizkuntzaren sinbolizatzeko gaitasuna.

Esaterako, artean ere ezkerrek eta eskubiaren esnahaiak garrantzia handia du. Azken epaiketa agertzen den irudi guztirtan konstante bat agertzen da, espazialki infernua jainkoaren ezkerrean agertuko zaigu, eta zerua eskubian.

SAKRIFIZIOA

4. Edmun Leach: *la lógica del sacrificio*

Edmun Leachek testuan adierazten du sakrifizioaren funtzioa mundu honen eta bestearen arteko komunikazioa sortzea dela. Horretarako, bibliako pasarte bat hartzen du, Aaron sazerdote bihurtzeko momentua, eta sakrifizioa zein punturaino dagoen kodetua erakusten digu. Sakrifizioa mundu honen, gizaki hilkorrena, eta bestea munduaren, jainko hilezkorraena, arteko lotura posible egiten duena bihurtzen da. Horrek auresuposatzen du mundu hau eta mundu honetatik kanpoko beste mundu bat dagoela, hau da, bi munduren sisnimenaren suposatzen du.

Lotura hori gertatu al dadin, kontaktu zona bat behar da, zona liminiala. Liminal kontzeptua Van Gennepengandik hartzen du, liminila "ez bat ez beste" den esparru edo egoera bat da. Egoera horrek ahalbideratuko luke erritua gauzatzea, eta sakrifizioaren bidez komunikazioa guzatzeko, mundu honen eta bestearen artean.

Maila materialean hau nola islatzen da?

Antzinako judutarrek euren espazioa, ez bakarrik munduari buruzko sinismena, euren espazio fisiko propioa bi ideia nagusien arabera antolatzen dute: sakratu eta profanoaren arabera. Sakratua eta profanoaren banaketaren arabera espazioa modu zehatz batean antolatzen da, eta modu zehatz horrek mailaketa bat dauka. Progresio bat egongo da mundu honetako alde profanoetatik, alde sakratuenera, beste mundutik gertuenen dagoen lekura. Natura kanpamendutik kanpo, kanpamendu barruan kultura. Kanpamenduaren barruan tabernakulua, eta bertan espazioaren antolaketa oraindik gehiago antolatzen da.

Chivo expiatorio gizarteko gaitz guztiak jasotzen dituen animalia da, eta ez da hiltzen, kanpamendutik kanpo uzten da natura basatian.

Modu honetan, bi auzi pizten dira espazioaren antolaketaren auzia, nola kudeatzen den espazioa profano eta sakatuaren artean.

Lehena oso argi ikusten da eliza ortodoxoetan. Argi ikusten da mundu honen eta bestearen arteko zatiketa, eta zona liminala. Horregatik, espazioaren okupazio soila profanazioa izan daiteke, ezer ikutu gabe ere.

SAILKAPENAK

5. Mary Douglas: *las abominaciones del levítico*

Mary Douglasek Levitikoaren gaineko analisisa egiten du, itun zaharreko testu bat, k.a 4000 urtekoa. Gaur egun egiten den animalien sailkapen oso antzekoa agertzen zaigu bertan; Levitikoan hiru orden desberdinetako animaliak bereizten dira (zeru, lur eta ura), eta gaur egun lauhanketakoak, arraiak, anfibioak, hegaztiak eta arrak bereizten dira. Mary Douglasek azalartzen duen ordena agertzen da Carls Lineoren sailkapenean, XVIII.mendeko biologoa. Lineok bere sailkapenean paradoxa kategoriatu planteatzen du, inon sailkatu ezin daitezkeen animalien kategoriatu, eta hori egiten du bat Mary Douglasekin, inpuroaren kategoriatu.

Ortinotorrinkoaren adibideak eta Lineroren sailkapenak erakusten digute Mary Douglasek erakusten duena, hau da, badagoela gizarte guztietan ordenatzeko sailkapen bat eta hau eraikia dela, eta sailkapenetik ateratzen den guztia, inpuroa, gutxietsia... dela. Ortaz, orden jakin batekin bat egiten ez duen oro inpuroa da, edo kutsakorra, edo arriskutsua. Mary Douglasek ideia hori azpimarratzen du elikagaien inguruan. Era berean, ideia hori bera agertzen da Lineoren paradoxa kategoriatu, baita gizartean pentsatzeko garaian gizartetik kanpo dagoen sektoreetan pentsatzean, marginalak, euren lekutik kanpo dagoen jendea dela.

Hemen agertzen zaiguna da zein puntutaraino gauden etengabe sailkatzen. Izan ere, etengabe ari gara sailkatzen, eta Mary Douglasek zein garrantzizkoa den erakusten digu. Sailkapenek gizartea egituratzen dute, eta badago kategoria bat sailkapen horretatik kanpo gelditzen diren sektoreak biltzen dituen, testuinguru erlijiosoan inpuroak izango dira, eta beste testuinguru batzuetan beste kategoria batzuk erabiliko dira. Azken hauek kutsakorrak eta arriskutsuak izango dira, ez datozelako bat ordenarekin. Modu honetan, kutsatzen duena lekuz kanpo dagoena da, sailkapenetik kanpo. Ideia hori edozein esaparrutara eramane daiteke, erlijiotik haratago.

Horrenbestez, gizarte batean dagoen sailkapenaren arabera sailkatu ezin duguna, ordenatik kanpo daudenak, arriskutsuak, inpuruak, marginalak... dira.

Antropologiaren barruan, gai nagusitako bat izan da azken hau, SAILKAPENENA. Mary douglasek antzinako judutarrek zein nolako debekuak zeuzkaten aztertzen du, baina antropologo askok mendebaldekoak ez diren gizarteak haien ingurukoa nola sailkatzen duten aztertzen dute, hau da, TAXONOMIA. Taxonomia, inguruaren sailkapena, gizarte guztiek daukate. Bada, taxonomiaren inguruko lan asko argitaratu ziren 70-80.hamarkadetan, antropologia sinbolikoak bere bidea egiten duen garaian, interes bat agertzen delako beste gizarteek zer nolako errepresentazio sistemak dauzkaten jakiteko, nola ordenatzen dute inguruan, hau da, mendebaldeak zientzia antolatu bereiztutan egiten dutena, banaketa hori, mendebaldeko gizarteak ez diren gizarteetara eramaten dute. Mendebaldeko gizarteak ez direnak nola antolatzen

du ten jakintza propioa inguruneari dagokionez eta abstraktuei dagokionez interes bihurtzen da.

Garai hartan pilpilean zegoen galdera bati lotuta zegoen guzti hau: ea mendebaldekoak ez diren gizarte horiek pentsatzeko modu arrazionala daukaten mendebaldeko gizarteen modura?

Modu honetan, konturatzen dira mendebaldekoak ez diren gizarteetan sailkatzen sistema oso konplexuak dituztela, beraz, arrazionaltasunaren erdigunea mendebaldetik ateratzen da. Azkenik, kontuan hartu behar da taxonomiaren inguruko lanen loraldia ematen da, antropologia sinbolikoak indarra hartzen duenean, eta deskolonizazio prozesua martxan jartzen den garaian.

6. S.J. Tambiah: *Animals are good to think and prohibit*

Judutarren elikadura arauak jankoaren ideia gogorarazten digute. Elikadura arauetara ezkontza arauen arteko korrelazioa erakusten du Tambiahk, aldiz, erakusten du

4.Gaia: IGAROTZE ERRITUAK

7. Van Gennep: *Los ritos de paso*

Igarotze errituak hiru erritu motetan deskonposatzen dira: separazio errituak, margen errituak eta agregazio errituak.

Soltero despedidak igarotze errituen adibide onak dira. Despedida egiten zaiona lagun taldetik banatu egiten da, desberdin jantziarazten da. Jantziz banatzen da, ondoren sozialki banatu egingo delako. Banatu egiten da lagun taldetik ezkontzen esparrura agregatzeko. Despedidak humillazioaren kutsua du, igarotzen erritu bat delako, eta inizazio errituetan normalean beti dago sufrimendu kutsu bat.

8. Victor Turner: *El proceso ritual*

Testu honetan igarotze errituetan aurki daitezken LIMINALITATE EGOERAK adierazten dizkigu, eta liminalitate egoeran dauden pertsonen ezaugarriak. Ondoren komunitas kontzeptua zertan den azaltzeko.

Turnerrek bere planteamendua egiteko Van Gennepen igarotze errituen teoria hartzen du oinarri. Igarotze errituetatik fase liminala interesatzen zaio, eta fase liminalean dauden pertsona (neofitoak) duten sinbolismoa aztertzen du. Egoera liminalean dauden pertsona hauek aurreko egoera batetik (status, posizio sozial...) ateratzen dira, eta igarotze puntu batean sartzen dira (egoera liminala), non haien pertsona izaera galtzen duten, eta anbiguotasuna eta indefinizioa da nagusi. Anbiguotasun hau sinbolismoan oso ageria da, esaterako militarren artean ematen den egoera (denak burusoil, berdin jantzita...). Azken batean, liminalidadean dagoen pertsona tabula rasa bat da.

Fase liminal horretan ematen den egoera horri komunitas deritzo Turnerrek, gizarteko estruktura sozialei kontrajarriz. Egoera guztietan eta toki guztietan gizartea estruktura sozial batean egituratuta dago, baina, era berean, badaude beti komunitas egoerak. Egoera hauek aldizkakoak dira, eta hor sortzen diren egoerak estruktura soziala birsortzea ahalbidetzen dute. Esaterako, igarotze errituetan liminalidade egoerak eman eta gero haien estruktura birformulatzen dute. Horrenbestez, komunitas egoera jakin bat izango litzake non estruktura soziala gelditu egiten den, eta sinbolo askoren bitartez, berriro ere indartu egiten den.

Komunitas momentu hauen sortzea gizakiak duen ezaugarri natural bat da, horregatik aurki daiteke gizarte guztietan eta momentuoro.

Hala ere, Turnerrek komunitas kontzeptua planteatzen du, bi modutan ulerturik. Alde batetik, edozein gizartetan bi egoera daude, egitura statusean oinarriturik, bakoitzak posizio jakin bat du bere egituraren barruan, eta gero komunitas egoera dago, egoera zirkunstanzial bat, egoera liminalekin lotuta. Bestetik, bere tesiari kritika bat eginez, esaten du ere sortu daitezkeela egoerak non komunitas permanentea eta egonkorra den, hau da, instituzionalizatu egiten da. Komunitas egoera instituzionalen adibidetzat komunitate erlijiosoak eta hippien komunitatea jartzen ditu, non norbanakoek haien identitatea betirako galtzen duten.

Komunitas egoeran estruktura soziala desagiten da, eta liminalidade edo margen egoera bat ematen da, non gizarteko kide guztiek haien statusa galtzen duten, sinboloen sorrera eta esanahi askoren sorrera ematen da, norbanakoaren identitatea desagertu egiten da, eta anbiguotasuna da nagusi. Komunitasen ezaugarri nagusia da norbanakoaren identitatea ezabatzeko une bat dela, horrek sekulako indarra ematen dio, ondoren estruktura soziala berregituratzeko eta berrestrukturatzeko.

Esaterako, inauteriak, komunitas egoera bat izan daiteke. Inauterietan estruktura soziala desagiten da, pertsonak mozturroak jantziz, haien norbanakoaren izaera galtzen dute, anbiguotasuna da nagusi.

Hala ere, Turnerrek komunitas kontzeptua planteatzen duenean konsziente da bere planteamenduak dituen mugez.

Liminalidade egoeran, komunitasean, norbanakoaren identitatea ezabatu egiten da eta komunitatea batasun bat bezala agertzen da. Komunitatea osatzen dutenen personen arteko ezberdintasunak desagertu egiten dira, eta horrek komunitas egoera sortuko luke. Turnerrek planteatzen du komunitas egoera zein puntutaraino dagoen gizartearen funtzionamenduarekin berarekin loturik. Izan ere, gizartearen egitura komunitas egoerarekin lotuta dagoela planteatu daiteke; gizarte batean komunitas egoerak tarteka gertatu behar dira, gizartearen egitura hori berretsiko dutenak. Hau da, komunitas egoerak ez daude lekuz kanpo, ez dira ezohikoak, baizik eta gizartearen funtzionamenduan txertatuta daude, egituraren indartzea ahalbidetzen dute, eraldatu daiteke baina egitura da komunitas egoera ondoren indartuta agertuko zaiguna. Egitura geroz eta indartsuagoa izan, komunitas egoeran ematen den homogeneitatea are handiagoa izango da, eta ondoren gizarte zurruna indartu egingo da.

9. Pierre Bordieu: *Que significa hablar?*

Bordieuk esaten du igarotze errituetaz hitz egin beharrean, instituzio errituetaz hitz egin behar dela. Hau da, kontua ez da Turnerrek edo Van gennepek esaten zuten moduan igarotze erritueta egoera batetik beste batera pasatzea, Atik Bra, baizik eta errito horiek markatzen zuten bestelako bereizketa bat, eta bereizketa bera hori zen errituaren funtsezko lana. Bereizketa hori instituzionalizatzea, ezartzea, da errituaren lana, erritua bizi zezaketenen eta bizi ezin zezaketenen arteko bereizketa. Kontua ez da Aestatusetik Bestatusera pasatzera, baizik eta lgaro zezakeen eta igaro ezin zuenaren arteko bereizketa egiten dute errituek. Beraz, errituak duten funtzioa da gizartean dauden instituzio horien berrestea, instituzioek mekanismo bezala funtzionatzen dute gizartean dauden ezberdintasunak, status zehatzak, ezartzeko garaian.

Horregatik esaten du bihur zaitez zaren hori". Instituzio errituek berretsi egiten dute instituzioaren garrantzia, eta arbitrarioa den bereizketa bat naturalizatu egiten dute. Natural bezala ulertarazi gizarteari. Honen adibide argia da generoen arteko bereizketa, modu arbitrarioan eraikitako zerbait dela erakusten du Bordeieren analisiak.

Instituzio errituak ezarritako ordena berresten du. Arbitrarioak diren muga eta bereizketa batzuk naturalizatu egiten ditu, alegia, errealaren irudikatze horrene eraikuntzak sortzen du errealitatea bera. Durkheimek esaten duen bezala errituak errealitatea sortzen du, instituzioak berak sortzen ditu gizon eta emakumeak, gizon eta emakume ezberdintasuna pentsatze horrek sortzen ditu errealitatean gizon eta emakumeak. Instituzio errituak eraginkortasun sinbolikoa dute, gizarteak funtzionatzen duela sinisten duen heinean.

5.Gaia: SINBOLOA ETA ERRITUALA GIZARTE ANTOLAKETAREN IKERKETAN

SINBOLOAK GIZARTEAK ULERTZEKO GAKOA: Antropologia sinbolikoa

10. Gregory Bateson: *Una ceremonia latmul*

Batesonen abiapuntua Ethos da, hau da, gizarte batean gizon eta emakume izatea zer den, zein jokabide izan behar diren, onartua dena. Bada, ethos hori nola eraikitzen den azaltzen du.

Batesonek planteatzen duen ethos kontzeptua bere formazio propioetik dator, zoologoa eta biologoa izan baitzen. Izan ere, zoologian badago adar bat etologia deitzen dena, animalien portaeraz diharduen zientzia. Modu honetan, sozialki onartutako portaera multzoari deritzo Ethos-ari, kodetuta dauden portaerak.

Batesonek Naven errituaren zentralitatea aintzat hartuta, planteatzen duena ez da soilik latmul gizartea aztertzeko marko bat, baizik eta edozein gizarte azteretzeko markoa, eta hori da cismogenesisa.

Bi partek elkarren artean duten harremanak elkarrelikatzen dute, cismogenesi osagarria. Bi partek elkarren beharra dute parte bakoitza existitzeko. Elkarren arteko harremana elkarrekiko harremana da, eta etengabe elikatzen ditu A eta B posizioan dauden Rolak. Hau da, ekintza bat egiten duenak erantzun bat jasotzen du.

Cismogenesi egoerak gizarte testuinguruan aztertzen ditu, egoera psikotikoak, ama eta semearen arteko harremana, EEBBak eta Sobiet Batasunaren arteko gerra hotza (cismogenesi simetrikoa: bi talde borrokan, eta batak egiten duenak, besteak zerbait hobea egitera behartzen du)...

11. Victor Turner: *La selva de los símbolos*

Lan egiteko metodo bat azaltzen du Victor Turnerrek. Izan ere, antropologoaren interpretazioa ez da interpretazio bakarra, Victor Turnerrek hiru interpretazio modu bereizten ditu:

- 1) Behaketa bidez datu enpirikoen deskribapena
- 2) Informatzaileen interpretazioa (aditu lokalen interpretazioa = exegesia)
- 3) Antropologoaren interpretazioa

Errituaren bidez ulertzen dira gizarte batean dauden tentsioak (gizarte matrilineal birilokalaren tentsioa)... Gizarte bateko erritu garrantzitsu baten azterketatik gizartearen egituraketa osoa ulertu daiteke.

Turnerrek ndmbu gizarteak aztertzen ditu, eta horren bitartez lan egiteko modu bat proposatzen du, eta honekin batera sinbolo mordo bat (sinboloak, errituak...) hau da, kasu etnografiko batetik abiatuta lanketa teoriko bat egiten du. Esnearen zuhaitzaren erritua aztertuz ndmbu gizartearen egitura ulertu daitekeela esaten du, erritu baten azterketatik gizartearen antolaketa ulertzera iritsi gaitzke, horregatik da antropologia sinbolikoaren barruan erreferente bat Turner. Sinboloak erdigunean kokatzen dituelako. Batesonek Naven errituarekin egiten duen bezala, intepretazio eredu bat proposatuz, Turnerrek gauza bera egiten du ndmbutarrekin, eta egiten duen ekarpen bat da, emozioak erdigunean sartzea.

Turnerrek emozioei ikaragarritzko garrantzia ematen diote, eta hori berria izango da.

Turnerrek metodo bat proposatzen du

Errituak jarrera formalak dira, sinimen edo indar mistikoekin erlazionatuta daduenak.

Sinboloa errituaren unitatea txiki bat da, baina bere ezaugarria mantentzen ditu. Sinboloak gizarteak ulertzeko bidea.

Sinboloak gizarte bateko esturkturarekin erlazionatuta da.

Sinbolo menperatzaileak:

Erritu sinboloek hiru ezaugarri

1) kondentsazioa:

2) Sinbolo menperatzailearen signifikata ezberdinak

3) polarizazioa: polo ideooikoa eta polo sensoriala

Sapirrek bi sinbolo mota ezberdinu: erreferentzialak (hizkuntzak, banderak...) eta kondentsazio sinboloak (errituko sinboloak).

Erreferentzialak modu kontziente batean eraiki, bestek, aldiz, inkontzienteki.

12. Clifford Geertz: "La interpretación de las culturas", *Juego profundo: notas sobre la riña de gallos en Bali.*

Geertzen arabera, kultura testu bat da, antropologoak interpretatu behar duena. Horregatik, oilarren borrokak testu bezala ulertuz, emozioak zentralitatea hartzen dute, borrokak balinesari bere subjektibitatearen dimentsio bat erakusten dio.

Oilar borroken errituak Baliko gizarte antolaketaren adierazle dira.

Kultura testu multzo bat bezala interpretatu behar da. Ondorioz, etnografia interpretazio bat da, objektibitateak ez du lekurik. Inportanteena subjektibotasuna da, subjektuak zein emozio dituzten, nola bizi duten...

Testu hau benetan GARRANTZITSUA da, ez bakarrik 1) antropologia sinbolikorako baizik eta 2) antropologo baten egitekoa ulertzeko. Geertzek landa lanareko sarrera nola egiten den zein puntutaraino den garrantzitsua erakusten du.

Testu honetan ikusten dugu nola Geertzek planteatzen duen IDAZKERAREN AUZIA. Testuaren lehenengo bi orrialdeak testu antropologikoen artean desberdinenak dira, hau da, testu oso literarioa da. Izan ere, Geertzek idazkera mota jakin bat garatu zuen, bera izango baita antropologia eta literaturaren arteko zubilanak plantaetauko dituen, antropologia ez baitago literaturatik hain urrun, eta antropologoa autore bezela ulertu behar dela planteatzen du.

Testuaren hasierak landa lanareko sarrera erakusten du, eta bertan bizitakoak irekitzen dizkio begiak ordurarte Balin egin beharreko landa laneko gaia aldatu eta oilarren borroketan fijatzeke. Oilarren borroka hauek kultura ulertzeko irakurtzeko testu modura ikusten ditu. KULTURA TESTU BILDUMA BAT ulertzen du, eta ondorioz kultura guztiek halabeharrez izango dute autore bat eta irakurle bat. Geertz bi posizioetan kokatzen da, testuaren idazlea da, eta era berean, irakurlea da, Baliko kultura testu moduan irakurtzen duelako.

Geertzek uko egiten dio inongo objektibotasun pretensiori, ez da posible pentsatzea antropologia objektiboa izan daitekeenik, eta horretarako IRAKURLEAREN METAFORA erabat argigarria da, testu berbera oso modu ezberdinean irakurri daitekeelako. Honek planteatzen du: Alde Batetik, antropologiak ezin diola bazter egin SUBJETIBOTASUNARI, eta hor Geertz posmodernismoan kokatzen da bete-betean, Beste Aldetik, erakusten du

Turnerrek plantetazen dituen hiru mailetan (behaketa bidez datu enpirikoen deskribapena, informatzaileen interpretazioa eta antropologoaren interpretazioa) guztiak direlako beharrezkoak baina ez dagoela hierarkiarik, hau da, gure interpretazioa, irakurlearena, interpretazio bat da, ez da besteak baino hobea, posible direnen artean bat gehiago, hau da, subjektibotasunaz gain MULTIBOKALITATEARI irekiko dio atea. Iada ez gaude Turnerrek planteatzen duen informatzaile pribilegiatuaren aroan, pertsona bat zeinarekin harreman estu bat duen antropologoak eta harreman horren bidez kulturaren kode inplizitu eta esplizituak ezagutzera iritsi daitekeen; Geertzek hori ere egiten du, baina aldarrikatzen du kultura horietako kideen gaintik saiatu behar garela kultura hori ulertzen, gainera ez dagoela kultura bat osotasunaena irakurtzeko aukerarik, eta ez dago irakurketa bat eta bakarra.

Geertzek bere burua autore eta irakurle bezela planteatzen du, eta azken honek INTERPRETAZIOEN ANIZTASUNAREN AUZIA pizten du. Izan ere, irakurle batek testu beraren gainean interpretazio bat suposatzen du gutxienez, are gehiago, irakurle berak testu beraren gainean interpretazio bat baino gehiago egin ditzake gainera. Irakurlea aldatzen den heinean, testu beraren gainean egiten duen interpretazioa ere aldatu egiten da. Kultura testu bat pentsatzeak irakurlea ekartzen du halaberrez, eta irakurlea ez da konstantea, interpretazio une jakin batekoa da, beraaz interpretazioen aniztasuna ikaragarria da. Psomodernismoaren printzipioa ulertzen da horrela, dena da posible, ez dago objektibotasunik, dena dago aniztasunaren ikuspegitik planteatuta. Planteamendu hau irakurlearen posizioak ahalbidetzen du, irakurlea ez baita inoiz identikoa, eta ondorioz, bere interpretazioa ere ez.

Autoritatearen printzipioa literaturan ere funtsezkoa da autorearekin bat egiten duelako. Egileak beere burua posizionatzen du, idatzi duenari buruz idazteko aukera duen pertsona bezela.

Exegesia (zergatik egiten diren gauzak azaltzea)
--

6.Gaia: SISTEMA SINBOLIKOEN IRAKURKETA ZENBAIT: SORGINKERIA

Tradizioz sorginkeriaren gaia Afrikarekin lotu izan da antropologian. Sorginkeriaren gaian Afrikan egin diren ikerketak ikusiko ditugu, eta ondoren Europa aldera.

13. Evans-Pritchard: *Brujeria, magia y oraculos entre los Azande.*

14. Max Gluckman: *Ciencia y brujería*

Evans Pritchardek sorginkeriaz dihardu, fenomeno garaikide bat delako.

Zergatik sorginkeria ikertu?

Sorgina BOTEREDUNA da, gizakiak izaten dituen botereak baino handiagoak ditu. Bere botere handienetakoa heriotza sortzea litzake, baina zeharka. Alegia, sorginari atxikitzen zaio botere bat nolabait ere bizitzaren bilakaeran modu dramatikoan eragitekoa, gaixotasunak sortuz, izurriteak... Sorginkeriari atxikitzen zaizkion botereak **gizakiaz haratagoko botereak** dira baina gizakairen esku daudenak, eta horrek bihurtzen du sorgina beldurgarri eta erakargarri.

Britaniarrek sorginkeria adierazteko bi kontzeptu: *witchcraft eta sorcery*. Witch konsideratzen den pertsonak nahikoa du intentzioa zerbait eragiteko, eta botere

hori berezkoa bezela zaio; Sorcery denak, aldiz, instrumentu batzuk behar ditu egin nahi duen hori gauza dadin. Euskeraz sorgina bakarrik dago, baina literaturan alde hau existitu izan dela kontuan hartu behar da.

Honekin lotuta, sorgina nola irudikatzen den garrantzitsua da.

Evans-Pritchardek azandetarren artean egindako ikerketan ikusten du **sorginkeriarekiko sinismenak GIZARTEA KONTROLAZEKO TRESNA moduan funtzionatzen duela**, gizarteko morala eraikitzen du, jarrera on eta txarrak. Gainera sorginkeriarenganako sinismena normatiboa da, gorrotoa eta enbidia jokabide txarrak bihurtzen ditu, eta elkartasun ekintzak onak. Gaitz guztiak interpretatzen dira egile baten arabekoak bezala, norbaitek sortzen ditu gaitz guztiak.

Sorginkeriarenganako sinismen honek gizartearen funtzionamendua arautzen du, erregulazio moduan funtzionatzen du. Gertatzen den guztia azaltzeko aukera ematen die sorginkeriak azandetarrei. Munduaren esplikazio bat suposatzen du, baina aldi berean, gizartearen arau normatibo bat dakar berarekin.

Sorginkeria gizartea kontrolatzeko elementu funtsezko bat bezela agertzen da. Izan ere, dena gertatzen bada sorginkeriagatik, ahalik eta hobekien portatzen saiatuko dira azandetarrak, inork ez dezan haiekiko gorrotoa edo enbidia izan eta ez ditzan sorgindu, sorginkeriak heriotza eta gaitzak ekar baiditzake.

Sorginkeriaren gaineko irakurketa honek kolokatzen du SORGINKERIA GIZARTEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BERME MODUAN, zentrala da, presentzia etengabea da, leku guztietan agerikoa da, baina, aldi berean, ez da "gaitz" moduan pentsa dezakegun zerbait, baizik eta gizartea bera behar den moduan funtzionatzeko ezinbesteko agertzen den sinismen bat. Alegia, Evans-Pritcharden analisiak sorginkeria anomalia konsideratua izatetik aparte kokatzen du, ez da diskurtso esplikatibo bat iadanik, baizik eta kontrol tresna bat, gizartearen funtzionamendu bermatzen duen elementua. Oso presente dago, baina oso presente egote horrek ez du esan nahi beste gizarteetan baino gehiago sinisten dutela sorginkeriarengan, baizik eta sorginkeria bera dela gizarte horretan gizartearen funtzionamendua bermatzen duen kontrol elementua.

Azandetarren arteko funtzionamendu onaren berme agertzen zaigu sorgindua izatearen berldurra. Gure gizarteak funtzionatzeko funtsezko elementu bat behar duen bezela, morala, azandetarren artean sorginkeria da (MORALA = SORGINKERIA). Horregatik funtzionatzen du sorginkeriak moralitateak bezala. Kontua da mundu guztiak sinisten badu gauza berberean, sinisten duten elementua funtsezko eta kontrol elementu bihurtzen dute = eraginkortasun sinbolikoa. **Sorginkeria zentrala eta eraginkorra da azandetar guztiak beregan sinisten dutelako.**

Evans-Pritchardek aldarrikatzen du sorginkeria ez dela gauza anomalo bat, egunerokotasunetik kanpo dagoen zerbait, baizik eta gizartea guztiz blaituta duen zerbait, eta gizarteak berak horrela funtzionatzen jarrai dezan ezinbestekoa dena.

Sorginkeria erabili izan da elementu negatiboak izendatzeko, alegia, errito batek edo sorgina den pertsona batek berezkoak dituen efektu negatiboak izendatzeko istripua, heriotza, edo bestelako gaitz eta kalteak. Baina sorgin hori gizakia da, alegia, ez da jainkoak/arbasoek/zientziak horrela esplikatzen dutelako, baizik eta gizaki batek horrela nahi izan duelako, **gizaki bati edo batzuei egozten zaie ikaragarritzko boterea, eta horrek bihurtzen du sorgina BELDURGARRI, eta era berean, ERAKARGARRI eta BOTERETSU.**

Marcel Mausek planteatzen zuenean EKINTZA SOZIAL TOTALAREN kontzeptua. Sorginkeria pentsa dezakegu ikuspegi horretatik. Gertakari sozial total baten moduan, hau da, gizartea bere osotasunean blaitzen duen zerbait, gizartearen antolaketa osoa ulertzeko ahalbidetzen duen zerbait. Sorginkeria lau elemnturen multzo konplexu bezela agertzen da:

1) Ideien konplexutasun bat agerian uzten du.

Ideien konplexutasun honetan alde batetik, agertzen zaigu **gizakia izaki banatu** bat bezela, hau da, sorginak eta ez sorginak, ez dago gizakiaren errepresentazio bakarra, gizakia ez izaki bateratu bat.

Bestetik, ideien konplexutasun honetan **indarraren nozio bat** agertzen da, sorgintzeko indar hori gizakien artean modu desberidnean banatuta dago.

Honez gain, pertsona eta gorputzaren irudikapen bat ere agertzen da, zeinetan gorputza bihurtzen den pertsona horren izaeraren marka jasotzen duena; azadetarren artean este lodiaren zati txuriak biurtzen du pertsona sorgin, gorputzak berak salatuko omen du sorgina nor den, gorputzak salatzen du izaera. XX.mendearen hasiera arte, fisikoak gizakiaren izaera salatzen duela erabili da gaizkile izan daitezkeen horien kontrolean, eta argazkigintzaren lehenengo helburuetako bat hori zen, argazkia botere eta kontrolarekin lotuta agertzen da. Norbanakoaren fisikoaren arabera, norbanako horiek duten izaera sailkatzen da mende honetan, antropologia fisikoan barruan. Hor agertzen zaigu gorputzaren ideia bat, zeinetan gorputzak salatzen duen pertsonaren izaera bat, sorginkerian agertzen zaigun bezala. Biak oso gauza ezberidna dira, baina bietan elementu komuna agertzen zaigu: **gorputzaren ete izaeraren arteko lotura**. Gaizkiaren jatorriari buruzko ideia planteatzen da.

2) Praktiken konplexutasun bat planteatzen da: sorginkeria deusezteko ekintzak

3) Afekto multzo bat, sorgindua izateko beldurrak bizitza krisi bihurtzen du: hiltzeko beldurra, gaixotzeko beldurra, dena galtzeko beldurra...

4) Esperientzia multzo bat suposatzen du: indibiduala eta kolektiboa. Gaitzaren esperientzia pertsonal bat denbora luzatzen dena eta asko errepika daitekeena, eta bere onera bueltatzeko bizipen bat ere.

Ekintza sozial total bat bihurtzen da horrela sorginkeria.

XVII.MENDEKO SORGIN EHIZAK

XVII.mende hasieran Euskal Herrian oso garrantzitsuak izan ziren sorgin ehizak gertatu ziren, sorginkeriaren goreneko garaiaren amaiera izan zirenak. Garai

honetan bi sorgin ehiza nagusi gertatu ziren, oso kilometro karratu guxtiren baitan, estatuaren arteko muga bat dagoelako tartean sorgin ehizak bakoitza bere baitako zerbait bezela ikusten dira. Urte berean 1609-1610, mugaren bi aldetara sorgin ehizen kontrako kanpainarik handienetakoa egin zuten Europa mailan, hainbestera, Zugarramurdiko ehizaren ondorengoa izan zen Logroñoeko epaiketa bihurtzen da inkisizioak sorginkeriaren kontrako azken epaiketa handia. Egon ziren sorgin ehizak ikertzen Zugarramurdin eta lapurdiko barnealdean, senperen.

Zergatik gertatzen da hau?

Sorginkeria **XVII. mendearen hasieran** ikusten dugu. Aldiz, sorginkeriari buruz dugun pertzeptzioa oso gauza mendiebala eta irrazionala da. Baina azterketa historikoek erakusten digute prozesu bat egon zela, eta prozesu hori ematen dela erdi aroaren amaieratik aurrera, eta berpizkunde betean sorginkeria elizaren jazarpen jomuga garrantzitsu bat bihurtzen da, honek ez du esan nahi sorginkeriaren aurkako epaiketik egon ez zenik aurretik, baina urriagoak ziren.

GRADUAZIO BAT ematen da erdi aroko sorginkeria auzitik berpizkunde arte. Erdi Aroko sorginkeria auziak delito arruntak ziren, eta plaza publikoan zigortzen ziren, hau da, Erdi Aroan sorginkeria gizarte mailan existitzen zen zerbait zen, eta zeuzkan ondorioak delito arruntarenak dira. XVII. mendeko sorginkeria auzietan agertzen diren kasuetan, aldiz, sorginak egiten duena ez da delitu arrunta, baizik eta deabruarekin egindako hitzarmenaren ondorioz egindako zerbait. Joko esparruan deabrua eta erlijio sartzen dira.

Hori prozesu bat da, eta **prozesu horren mugarrietako bat** 1486an argitratzen den liburu bat da: "*malleys malleficarum*", gaizkiaren mailua euskaraz. Azken hau bi elizgizon alemanek argitaratzen dute, eta ikarragarizko zabalkundea dauka. Bertan sorginaren figura tipifikatu, sorginkeriak egiten dituen gaitzen deskribapena, eta baita ere nolakoak diren sorginkeria errituak biltzen dute. Liburu honetan **SORGINA ETA SORGINKERIAREN ERAIKUNTZA** bat agertzen zaigu, Europa guztira zabaltzen dena garai honetan, Erdi Aroaren amaieran, eta berpizkundearen hasieran. Hortaz, oso garai interesgarria da, aitasantuak atal berezi bat eraikitzen du erlijioaren aurkako ekintzak epaitu eta zigortzeko, **inkisizioaren atala**, inkisizioak erregia ikertzen du, sinismen normatua zalantzan jartzen duen edozer. Ondorioz, sorginkeria iada ez da delitu arrunta, epaile zibil batek epaitu dezakeena, baizik eta iada bihurtzen da elizaren tribunal berezi baten dagoen zerbait eta hor botere zibilak ez dauka eskumenik. Erregia deliturik handiena da, eta handiena den heienan, zigor handiena jasan dezake, bizirik sutan erretzea.

Zugarramurdiko sorgin ehizaren prozesua 1610an hasten da Logroñon, tarte horretan Europa osoan zehar sorgin akusazio etengabeak ematen dira, eta sorgin ehiza inportanteak gertatzen dira europako zonalde ezberdinetan. Ehiza horien azkenetako bat eman zen Zugarramurdin.

1486 eta 1610 artean Europa mailako sorginkeria ehiza kanpaina handi guztiak gertatzen dira, eta 1610an Zugarramurdiko prozesua ematen da, inkisidore batek lehen aldiz zalantzan jartzen duelako sorginek aitortzen dutena. Izan ere, sorginek tortura handiak jasan ondoren aitortzen zuten egindakoa, ondorioz, aitortzen zutena torturazailleek entzun nahi zutena zen. Gainera Alemanian

jasotako sorgin baten aitortza eta Euskal Herrikoa antzekoa izango da, sorginaren eta sorginkeriaren eraikuntza tipifikatu bat dagoelako europa osoan. Ondorioz, torturapean jasotako lekukotza horiek erakutsiko dutena da torturatzailleak zer entzun nahi duten, ez benetan zer esan nahi duten.

Antropologiak sorginkeria hastapenetatik ikertu du, gainera azken hau bertan gertatutako fenomeno bat da, ikerlarien atentzio deitu duena. Horrela Caro Barojak artxibora jota "*Las brujas y su mundo*" idazten du.

15. Jeanne Favret-Saada: *Deadly, words, witchcraft in the Bocage.*

Favret Saadaren testuan agertzen zaiguna da sorgindua izateko ezinbestekoa dela HITZA. Sorgindua zaudela jakiteko eta asumitzeko hitza ezinbestekoa da, eta sorginari bere indarra desusezteko, hitz eza ezinbestekoa da, eta sorginen arteko borrokan ere hitza da erdi erdian dagoena.

Liburuaren izenburua adierazgarria da: Hitz hiltzaileak.

Alegia, hitza erdigunena kokatzen du Favret-Saadak sorginkeria ikertzerakoan.

7.Gaia: HIZKUNTZA ETA METAFORA

Berriro ere bueltatuko gara gai orokor batetara, eta antropologia sinbolikoaren ikuspegitik hizkuntzari zer nola erreparatu zaion ikusiko dugu, eta hor bi norbide izango ditugu: alde batetik, **hizkuntza antropologiako tresna moduan**. Geertzek planteatzen duena, antropologiaren eginbeharrekoa interpretazioa da, eta interpretazio haue giteko bidea hizkuntza da, antropologian hizkuntza ezinbesteko tresna da Geertzentzat, kultura testu bat bezela interpretatu behar da, metaforikoki ari da baina erdigunean kokatzen duena hizkuntza da, hizkuntza sistema sinboliko bat den heinean, sinbolikotasun hori ber bi ageri du; beste aldetik, zer nolako garrantzia izan **duen hizkuntzak ikerketa objektu bezela**.

Hizkuntza erabiltzen dugunean, maila literalenean hitz egiten dugunean ere, operazio sinboliko bat egiten dugu. Mahai eta objektuaren arteko lotura esaterako, erabat arbitrarioa da. Hizkuntzaren beraren funtzionamenduan operazio sinboliko bat agertzen zaigun, hitz egitea ekintza sinboliko bat da berez, hitza erabiltzen dugulako beste zerbait adierazteko, erralitatearen beste elementu bat. Hasier hasieratik hizkuntzak berez hartzen du sinbolizatzeko gaitasunaren ezaugari hroi, ahu da, ezin da pentsatu hizkuntza bat sinbolizatzeko gaitasunik gabe. Hizkuntz sinbolizatzeko tresna, sistema bat da.

Mahairen adibera bueltatzen bagara; mahaia izendatzea alde batetik, operazio sinbolikoa da, baina berez duen izaera sinboliko hori areagotu daiteke.

Izan ere, sinbolizatzeko bi maila nagusi bereiz daitezke: alde batetik, lehenengo adiera literala dugu (sinbolizatzeko adibide bezala agertzen ez zaizkigun hitzak, objektuak izendatzeko ekintzak), eta bestetik, ondotik datozkigu maila sinbolikoak bezala irudikatzen ditugun adierak (metaforak), hizkuntzaren sinbolizatzeko gaitasunaren beste koxka.

Metaforaren garrantzia handia da, hizkuntzaren erdigune bezela, sinbolizatzeko gaitasun goren bezela, iadanik sinbolikoa den elementu bat, esnahai aldetik gehiago kargatzen dugu. Horregatik metaforak dira hain intersgarriak, esnahaiaren inguruko eztabaidak biderkatu egitend irelako, konbentzionala eta arbitrarioa eta esanahi anitza duen zerbait bada hizkuntza, nolabait ere

metaforari buruz hitz egiten dugunean maila bat gorago ari gara. Horregatik, literalki hitz egitea oso zaila da

Sinbolizatzeko gaitasun horri tiraka egin dute lan antropologoek ikaragarri. Alde baetik, metaforaren inguruko hausnarketa oso bat dugu, antropologia sinbolikoak plazaratzen duena, metaforaren inguruan ikerket sakon bat, 70.hamarkatik aurrera. Baina baude lehenagoko antropologoena lana baliatu direnak hizkuntzaren garrantzi horretan sakondu dutenak.

SAPIR-WHORF TEORIA

Sapir eta Whorf hizkuntzalari eta antropologo EEBBarrak. Plazaratzen dute gerora Sapir-Whorf teoria bezela ezagutuko dena, planteatuko dute hizkuntza bakoitzak berekin dakarrela munduaren ikuskerak jakin bat, erlatibismo linguistikoaren teoria, muturrera eramango balitz teoria hau, iritsiko ginake puntu batera zeinetan ezinezkoa litzateke itzulpena.

Sapirrek egin zituen lehenengo lanak, EEBBetako populazio amerindiarrarekin eta eure hizkuntzeekin, bere hizkuntzalaritza eta antropologiako jakintza uztartu eta ideia hau planteatzen du: hizkuntz bakoitzak bere mundu ikuskerak propioa dakar: hizkuntza bat = kosmologia bat. Modu honetan, itzulpenak salatu egiten ditu kosmologiaren mugan jolasean baitzaude.

Sapir-Whorfen teoriak diotenen arabera, hizkuntza jakin bateko pertsona elebakarra inguratzen duen errealitateak erabat baldintzatzen du bere mundua sailkatzeko modua. Hitz egiten duzun hizkuntzak baldintzatu egiten du zure pentsaera, zure mundua ikusteko modua.

60-70.hamarkadan, ETNOLINGUISTIKA izeneko adar bat sortzen da, antropologia eta hizkuntzalaritza uztartzen ditena, eta bere helburuetako bat taxonomia bezalako alde lexikoa eta semantika jorratzea, eta horren bidez hizkuntza hori maneiatzen duen gizartearen esanahia argiagotzea, eta hizkuntza bakoitzean hizkuntzako gramatika zertan datzan. Antropologoak nagusiki mendebaldeakoa ez diren kulturak aztertu dituzte, ahozko erregimen bat duten kulturak eta idatzia ezagutzen ez dutenak. Horrek esan nahi du hizkuntza horiei buruzko informazioa urria izan dela, askotan misiolarien eskutik jasotako datuak dira bakarrak. Antropologoak hizkuntzaren beste interes bat agertzen dute, asmoa ez da inor konbertitzea, eta plazaratzen diren galderak dira hizkuntzalaritza dagozkionak: zer da aditz bat ahalako hizkuntzatan? Nola eraikitzen da gramatika? Hizkuntza guztiek dutelako gramatika bat, berezko arau sorta bat. Idatzia ezagutzen duen kultura batek liburu formatotik jasotzen du gramatika, baina hizkuntza guztiek dute gramatika bat, hizkuntzek badakite zer dagoen ondo eta zer ez, nahiz eta liburu batean idatzia ez egon. Orduan antropologoa, neurri handi batean, hizkuntza ikerketa objektua bihurtzen dute. Iada ez dago soilik hizkuntzaren beste interes, baizik eta hizkuntza tresna ezinbesteko bihurtzen da, eta hor sartzen da etnolinguistika.

60.hamarkada bukaeran bi antropologo eta etnolinguistak koloreen inguruan egindako ikerketa: Berlin eta Keye. Espektrorikotik abiatuta, egiten dute azterketa bat mundu mailako 101 hizkuntzatan koloreak nola adierazten diren aztertuz. Unibertsoaren eta partikularraren arteko diskusioa dugu hemen bete betean. Gizakiok ditugun ezaugarriak berberak dira, koloreak ikusi egiten

ditugu. Kontua ez da bereiztea gizaki batzuk koloreak bereizteko gaitasun gehiago daukaten edo ez, frogatuta dago ikusi ikusi denek ikusten ditugula kolore guztiak, baina ez ditugu berdin sailkatzen. Espektrorik gaitasun zuzenaren frekuentziak osatzen dute, eta mugak oso zabalak dira; sailkapen horren arabera koloreen arteko marra bat ezartzen da.

Berriaren planteamendua zen: hizkuntza desberdinetan koloreak izendatzeko termino kopurua altu egiten da, eta haien ustez badago korrelazio bat koloreak izendatzeko termino kopuru eta nolabaiteko bilakaera maila batekin, hizkuntzari dagokionez. Modu honetan, hizkuntzak ulertzeko zazpi fase bereizten dituzte, koloreak izendatzeko erabiltzen diren termino kopuruaren arabera, *Basic Color Terms*. Eboluzio mailaketa bat proposatzen dute.

Horrelako ikerketak 60-70. hamarkadan sortzen direnak, eta etnolinguistika indartzen dutenak, esparru sinbolikoaren garrantzia azpimarratzen dute. Hizkuntzari erreparatzen diote, gaitasun sinbolikoaren adierazle nagusia delako, eta era beran, metafora joko aberatsak plazaratzeko bidea ematen duelako, eta era berean, erritualen testuinguruan hizkuntza eta ekintzaren arteko harremanera eraman daitekeelako.

16. Clifford Geertz: *deskribapen trinkoa*

17. Rappaport: *Ritual y religion en la formación de la humanidad.*

Rappaportek planteatzen du hitza eta ekintzaren arteko kontrastea erritualari dagokionez.

Rappaportek errituan hitza eta ekintzaren uztarketa planteatzen du. Hau da, errituan hitza eta ekintza behar dira, ez da nahikoa ez bata ez bestea, biak eman behar dira eta biak modu jakin batean uztartu egin behar dira erritua betetzeko. Erritua behar bezala kumplitzeko hitzak eta ekintzak uztartu egin behar dira modu kodetu batean.

Adibidea: Tony Blair erreginak lehen ministro izendatzen duen unea. Modu jakin batean eta zehatz batean ematen da instituzio erritua, Blair lehen ministro izendatzeko. Momentu horretan, posizio zehatz batea, hitz zehatz batzuk eta ekintza zehatz batzuk ematen dira, formula zehatz bat erabili behar da erritua kumplitzeko. Oiazun publikorik gabeko erritu politikoa.

8.Gaia: SINBOLOAK ETA ERRITUALAK POLITIKA ALORREAN

Gernikako bonbardaketak helburu sinbolikoa zuen gehiago estrategikoa baino. Baina Gernikako arbola eta juntetxea ez zituzten bonbardatu, izan ere, sinbolo goren bat deusezten baduzu, jendearen erreakzioa ez dakizu nolakoa izango den, galtzeko ezer ezdaukanak hil arte borrokatzen baitu. Ezer galtzerik ez izatea kontrolaezina izan daitekeen arma ikaragarri bat izan daiteke.

Sinboloei dagokionez, Turnerrek zioen bezala, kondentsazio sinbolo bat suntsitzeak izan dezakeen efektua ezin da aurreikusi. Horregatik ez zute bonbardatu juntetxea eta arbola.

Adibide honetan argi gelditzen da esparru politikoak eta esparru sinbolikoak duten lotura.

18. David Kertzer: *ritual, politics and power.*

Kertzerrek erakusten du politikan sinboloak eta errituak garrantzi handia duen. Sinboloak eta errituak bzi modernoan sartuta daude, et ajendeari jokatzeko eta identifikatzeko laguntze diote indar politiko zehatzekin etab.

Hala ere, jendeak normalean ez du identifikatzeko politika eta erritua, azken hau oso loturik baitago erlijioarekin. Horregatik uste dugu politikak ez duela zirikirik erritu eta sinboloekin, baina hau ez da horrela.

Kertzerrek dio gure sistema eta polinesioa ez dela hain ezberdina, eta gu ez gara hain arrazionalak. Bere ustez, sistema politiko guztietan daude errituak eta sinboloak oso presente, azken hauek status quo mantentzeko eta gizartea egonkortzeko balio posible dute, eta guztiz kontrako iraultza bat ahsteko eta orden berri bat ezartzeko erabil daitezke.

Zein sinbolo hauteman aukeratzen dugu, eta horrekin gure ikuspegi sortzen dugu, eta horren arabera mundua kategorizatzen dugu: idiosinkrasia (ikuspegi sinbolikoa), indibiduala edo pertsona talde bat. Prozesu hau modu inokontziente batean ematen da. Baina mundua ulertzeko eta mundutik mugatzeko sinboloak eta errituak erabilzen ditugu nahiz eta ez konturatu.

Gure sistema politiko osoa normalean ez zudgu sinbolo gisa ikusten, baina honek erabiltzen ditu sinboloak funtzionatzeko mantentzeko. Politikariak eta gizartea hartueman batean dago sinboloak sortu eta eraldatzeko.

Oso garrantzitsua da sinboloek gure gizartea eraldatzeko dutelako. Sinboloa, erlijiotik kanpo, gizartearen kaosean nolabaiteko egonkortasun ahalbidetzen duen ekintzen errepikapena da.

Sinbolo sare honen barruan drama (antzerkia) oso garrantzitsua da. Sinboloak gure gizarteari orden bat emateko erabiltzen dira.

Turnerrek planteatzen zuenean emozioak kudeatzeko gaitasuna daukate sinboloek. Sinboloek duten oinarreitako bat, arrakstaren klabeetko bat emozioen bideratzean datza. Horegatik funtzionatzen dute sinboloek sentimenduak mugiarazten dituztelako, esaterako patriotismoaren ideia EEBBetan, baina etengabe elikatu behar den gauza bat da.

Erritualak eta politikaren arteko lotura ezhoiko aspektutan edo egunerokoan aurki daitezke. Alegia, kertzerekin esaten diguna da erritualak eta sinboloak esparru politikoa goitik behera blaitzen dute.

Kertzerekin arotzio nagusietako bat da esparru politikoak behar duela arlo sinbolikoa jorratu, toki guztietan, mendebaldean ere.